

**Bizkaiko Foru Aldundiaren 38/2010 FORU DEKRETUA**, martxoaren 23koa, Bizkaiko Lurralde Historikoan, 2010. urtean zehar, jarduera arkeologikoak eta paleontologikoak egiteko diru-laguntzak nola eman arautzen duena. jarduera horiek, dena dela, honako hauek bakarrik izango dira: batetik, kalifikatutako eta inbentariatutako gune edo ondasun arkeologikoak, edo ustez hondakin arkeologikoak dituztenak, edo eusko jaurlaritzaren kultura zuzendaritza nagusiaren artxi-boetan ondasun kalifikagarri edo inbentariagarri gisa agertzen direnak ukitzen dituen edozein obra motaren ondorioz beharrezkoak diren jarduerak, eta, bestetik, ustekabeko aurkikuntzen ondorioz beharrezkoak direnak.

Euskal Kultur Ondareari buruzko uztailaren 3ko 7/1990 Legeak («EHA», 157. zk., 1990eko abuztuaren 6koa) 102.2 artikuluan ezarri du foru aldundiek urtero onetsiko dituztela kalifikatutako eta inbentariatutako kultura-ondasunen kontserbazio, hobekuntza, zaharberrikuntza eta indusketetarako laguntzen egitarauak; egitarau horietan ezarriko da, hain zuzen ere, zein laguntza emango diren, baita horiek esleitzeko irizpideak eta baldintzak ere.

Arau-esparru horren barruan, foru dekretu honek arautzen du nola eman Bizkaiko Lurralde Historikoan 2010. urtean zehar egin eta amaituko diren jarduera arkeologikoak eta paleontologikoak, Euskal Kultur Ondareari buruzko uztailaren 3ko 7/1990 Legearen 45.5, 48.2 eta 49.2 artikuluetan jasota daudenak, sustatzeko diru-laguntzak; horretarako irizpide nagusiak publikizitatea, lehia eta objektotasuna izango dira

Euskal Kultur Ondareari buruzko uztailaren 3ko 7/1990 Legearen 45.5 artikulua ezartzen duenez, jarduera arkeologikoa beharrezkoa bada kalifikatutako eta inbentariatutako gune edo ondasun arkeologikoak ukitzen dituen edozein obra motaren ondorioz, orduan, sustatzaileak horretarako proiektu arkeologikoa aurkeztu behar du dagokion Foru Aldundiaren aurrean, obrak burutu aurretik onetsia izan dadin. Jarduera hori gune edo ondasunok ukitzen dituzten jardueren titularrak finantzatu behar du, baldin eta zuzenbide publikoko erakundea bada. Bestela, Foru Aldundiak parte hartuko du gastuetan; horretarako laguntzak emango ditu, arau bidez finkaturiko baldintzetan, Aldundiak berak proiektua beharrezkotzat jo eta zuzenean egiten duenean izan ezik.

Halaber, ustekabeko aurkikuntzen kasu batzuetan, aipatu legearen 48.2 artikulua ezartzen du foru aldundiek beren gain hartuko dituztela proiektu arkeologikoa idatzi eta burutzeko kostuak, ukituriko ondasuna kalifikatu edo inbentarioan sartzeko espedientea Eusko Jaurlaritzak hasten duenean izan ezik; azken kasu horretan, 45.5 artikuluan xedatutakoa bete beharko da.

Azkenik, lege-testu horren 49.2 artikulua zehazten du 45.5 artikulua aplikatu behar dela, halaber, hondakin arkeologikoak ustez egon daitezkeen alde, orube eta eraikinen kasuan.

Goiago aipatutako uztailaren 3ko 7/1990 Legearen 45.5, 48.2 eta 49.2 artikuluek ezartzen dute artikulua horietan azaldutako jarduera arkeologikoreen %50 ordaindu behar duela Foru Aldundiak; hortaz, legezko betebeharra da. Ondorioz, laguntzak emateko prozedura ez da norgehiagoka izango, ohi den bezala, baizik eta, salbuespen gisa, lehia askea —maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 20.1 artikuluko 3. lerroaldea—. Horrenbestez, diru-laguntzetarako eskaerak —baldin eta eskabideok deialdian ezarrita dauden betekizunak betetzen badituzte— erregistroan aurkeztean izandako hurrenkeraren arabera ebaztiko dira, horretarako ezarrita dagoen epearen barruan, harik eta aurrekontuko zuzkidurak agortu arte.

Bizkaiko Lurralde Historikoaren eremuan, maiatzaren 12ko 62/1998 Foru Dekretuak ezarri zuen Bizkaian jarduera arkeologikoak egiteko arautegia, eta osatu egiten du Bizkaiko Lurralde Historikoan 2010. urtean egiten diren jarduera arkeologikoak eta paleontologikoak egiteko diru-laguntzak nola eman arautzen duen dekretu honen esparru juridikoa.

Azaldutakoa dela bide, eta Bizkaiko Kondaira Lurraldeko Foru Erakundeen Hautapen, Antolaketa, Erregimen eta Funtzionamenduari buruzko otsailaren 13ko 3/1987 Foru Arauaren 17, 39 k) eta 64.3 artikuluek xedatutakoa eta Kulturako Foru Sailaren egitura organikoari buruzko araudia onetsi zuen Bizkaiko Foru Aldundiaren ekainaren 22ko 132/2006 Foru Dekretuak xedatutakoa ikusita, eta Foru Administrazioak ematen dituen diru-laguntzen

**DECRETO FORAL de la Diputación Foral de Bizkaia 38/2010, de 23 de marzo, por el que se regula la concesión de subvenciones para la realización de actividades arqueológicas y paleontológicas en el Territorio Histórico de Bizkaia que se hagan necesarias como consecuencia de cualquier tipo de obras que afecten a zonas o bienes arqueológicos calificados, inventariados, de presunción arqueológica o que consten en los archivos de la Dirección General de Cultura del Gobierno Vasco como bienes calificables e inventariables, y que se hagan necesarias como consecuencia de hallazgos casuales a lo largo del año 2010.**

La Ley vasca 7/1990 de 3 de julio, de Patrimonio Cultural Vasco («Boletín Oficial del País Vasco» número 157, de 6 de agosto de 1990), en su artículo 102.2 establece que las Diputaciones Forales aprobarán anualmente los programas de ayuda para la conservación, mejora, restauración y excavación de bienes culturales calificados y de los inventariados, en los que se establecerán las ayudas a conceder, así como los criterios y condiciones para su adjudicación.

Dentro de este marco normativo el presente decreto foral regula la concesión de subvenciones para la realización de actividades arqueológicas y paleontológicas en el Territorio Histórico de Bizkaia contempladas en los artículos 45.5, 48.2 y 49.2 de la Ley 7/1990 de 3 de julio de Patrimonio Cultural Vasco, que se realicen o concluyan a lo largo del año 2010, sobre la base de los principios de publicidad, concurrencia y objetividad.

El artículo 45.5 de la Ley 7/1990 de 3 de julio de Patrimonio Cultural Vasco, establece que, en los casos en que la actuación arqueológica se haga necesaria como consecuencia de cualquier tipo de obra que afecte a zonas o bienes arqueológicos calificados y a los inventariados, el promotor deberá presentar el correspondiente proyecto arqueológico ante la Diputación Foral para su aprobación previa a la ejecución de aquellas. Su financiación correrá a cargo del titular de las actuaciones afectantes en el caso de que se trate de entidades de derecho público. En caso contrario, la Diputación Foral participará en la asunción de los gastos mediante la concesión de ayudas en los términos que se fijen reglamentariamente, a no ser que ejecute directamente el proyecto que estime necesario.

Asimismo, el artículo 48.2 de la citada ley, en relación con determinados supuestos de hallazgos casuales, establece que las Diputaciones Forales asumirán los costes de redacción y ejecución del proyecto arqueológico salvo que el Gobierno Vasco incoe expediente para calificar o inventariar el bien afectado, en cuyo caso se estará a lo dispuesto en el artículo 45.5.

Finalmente, el artículo 49.2 del mismo texto legal, señala igualmente la aplicación del artículo 45.5 respecto de zonas, solares o edificaciones en que se presuma la existencia de restos arqueológicos.

Los artículos 45.5, 48.2 y 49.2 de la Ley 7/1990, de 3 de julio, antes referenciados establecen la obligatoriedad de la Diputación Foral de satisfacer el 50% de la actuación arqueológica en ellos descrita, por lo que estamos ante una obligación legal, razón por la cual el procedimiento de concesión no será el ordinario de concurrencia competitiva, sino que las solicitudes de subvención que reúnan los requisitos establecidos en la convocatoria serán resueltas por orden de registro, dentro del plazo establecido al efecto, hasta que las dotaciones presupuestarias lo permitan, fijándose en consecuencia como procedimiento de concesión a seguir el excepcional de libre concurrencia —tercer párrafo del artículo 20.1. de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo—.

En el ámbito del Territorio Histórico de Bizkaia, el decreto foral número 62/1998, de 12 de mayo, establece la normativa para la ejecución de actividades arqueológicas en Bizkaia, completando el marco jurídico del presente decreto regulador de la concesión de subvenciones para la realización de actividades arqueológicas y paleontológicas en el Territorio Histórico de Bizkaia, que se realicen a lo largo del año 2010.

Por ello, en virtud de lo expuesto, y vistos los artículos 17, 39k y 64.3 de la Norma Foral 3/1987, de 13 de febrero, sobre Elección, Organización, Régimen y Funcionamiento de las Instituciones Forales del Territorio Histórico de Bizkaia, así como el decreto foral 132/2006, de 26 de julio, de la Diputación Foral de Bizkaia, por el que se aprueba el Reglamento de Estructura Orgánica del Departamento Foral de Cultura y en uso de las facultades conferidas por

araubide juridiko orokorra arautzen duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauan emandako ahalmenak erabiliz, Kulturako foru diputatuak proposaturik, Bizkaiko Foru Aldundiaren Gobernu Kontseiluak 2010eko martxoaren 23ko bileran eztabaidatu eta onetsi ondoren, hauxe

XEDATZEN DA:

#### 1. artikulua.—*Xedea*

1. Foru dekretu honen xedea da Bizkaiko Lurralde Historikoan, 2010. urtean zehar, jarduera arkeologikoak eta paleontologikoak egiteko diru-laguntzak nola eman arautzea. Aipatu jarduerak honako hauek bakarrik izango dira: batetik, kalifikatutako eta inbentariatutako gune edo ondasun arkeologikoak, edo ustez hondakin arkeologikoak dituztenak, edo Eusko Jaurlaritzaren Kultura Zuzendaritza Nagusiaren artxiboetan ondasun kalifikagarri edo inbentariagarri gisa agertzen direnak ukitzen dituen edozein obra motaren ondorioz beharrezkoak direnak, eta, bestetik, ustekabeko aurkikuntzen ondorioz beharrezkoak direnak.

#### 2. artikulua.—*Diru-laguntza jaso dezaketen jarduerak*

1. Foru dekretu honen arabera, honako jarduera hauek jaso dezakete diru-laguntza:

- Arkeologia eta paleontologiako prospekzioak.
- Kontrol arkeologikoa.
- Arkeologia eta paleontologiako zundaketak.
- Arkeologia eta paleontologiako indusketak.
- Arkeologia eta paleontologiako ikerketak.

2. Foru dekretu honen arabera, honako hauek ez daude diru-laguntza jaso dezaketen jardueren artean:

- Bizkaiko Lurralde Historikoa gainditzen duten jarduerak.

b) Euskal Kultur Ondareari buruzko uztailaren 3ko 7/1990 Legearen 45.5, 48.2 eta 49.2 artikuluen itzalpean egiten ez diren jarduera arkeologiko eta paleontologikoak.

3. Diru-laguntza bakar-bakarrik emango zaio 2010. urtean zehar benetan egiten den jarduerari edo jardueraren zatiari. Horretarako, beharrezkoa izango da esku-hartzeari dagokion aurretiazko memoria edo txostena aurkeztea Kultura Ondarearen Zerbitzuan (María Díaz de Haro kalea, 11, Bilbo, 48013).

#### 3. artikulua.—*Onuradunak*

1. Honako hauek izan daitezke onuradun: 2010. urtean diru-laguntza emateko oinarri den esku-hartzea —osorik edo zati batean— egin duten pertsona fisikoak (norbanakoak), partaide-tzapekoak ez diren enpresak (S.A., S.L., kooperatiba-sozietateak eta sozietate zibilak, Kode Zibilaren 1669. artikuluan jasota daudenak izan ezik) eta enpresaburu edo profesional izaera daukaten pertsona fisikoak, Ekonomi Jardueren gaineko Zergan alta emanda daudenak. Horretarako, eskatzaileek (pertsona juridikoek eta enpresaburuek) egiaztatu behar dute, batetik, jarduera egiteko titulu juridiko egokia eta nahikoa dutela; bestetik, esku-hartzea egiteko behar diren eskuespenak, baimenak eta lizentziak badituztela, eta, azkenik, diru-laguntzen arloko foru arategiak oro har ezarritako betekizunak betetzen dituztela.

2. Eskatzailea ez bada esku-hartzea egin nahi den higieziaren jabea, frogatu beharko du jabeak bertan esku hartzeko baimena eman diola, eta, horretarako, Zuzenbidean onartutako edozein frogabide erabil dezake.

3. Ezin dira onuradunak izan maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 12. artikuluko 2. eta 3. paragrafoetan deskribatutako egoeraren batean dauden pertsonak.

#### 4. artikulua.—*Eskabideak eta agiriak*

1. Diru-laguntzetarako eskaerak foru dekretu honen I. eranskin gisa ageri den inprimaki ofizialean aurkeztu behar dira; II., III., IV. eta V. eranskina ere aurkeztu behar dira, behar bezala beteta, bai eta jarraian zehazten diren agiriak ere; izan ere, agiri horiek egiaztatzen dute diru-laguntzaren onuradun izateko beharrezko baldintzak betetzen direla.

la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral, a propuesta de la Ilma. Sra. titular del Departamento de Cultura, previa deliberación y aprobación del Consejo de gobierno de esta diputación Foral en reunión de 23 de marzo de 2010,

SE DISPONE:

#### Artículo 1.—*Objeto*

1. Constituye el objeto del presente decreto foral la regulación de la concesión de subvenciones para la realización de actividades arqueológicas y paleontológicas en el Territorio Histórico de Bizkaia que se hagan necesarias como consecuencia de cualquier tipo de obras que afecten a zonas o bienes arqueológicos calificados, inventariados, de presunción arqueológica o que consten en los archivos de la Dirección General de Cultura del Gobierno Vasco como bienes calificables e inventariables, y aquellas que se hagan necesarias como consecuencia de hallazgos casuales, que se realicen a lo largo del año 2010.

#### Artículo 2.—*Actividades subvencionables*

1. Las actividades subvencionables con arreglo al presente decreto foral son las siguientes:

- Prospección arqueológica/paleontológica.
- Control arqueológico.
- Sondeos arqueológicos/paleontológicos.
- Excavación arqueológica/paleontológica.
- Estudios arqueológicos/paleontológicos.

2. No tendrán la consideración de actividad subvencionable con arreglo a este decreto foral las siguientes:

a) Las actividades que superen el ámbito del Territorio Histórico de Bizkaia.

b) Las actividades arqueológicas y paleontológicas que no se realicen al amparo de los artículos 45.5, 48.2 y 49.2 de la Ley vasca 7/1990, de 3 de julio, de Patrimonio Cultural Vasco.

3. La subvención vendrá referida exclusivamente a la actividad, o parte de la actividad, que efectivamente se realice o concluya a lo largo del año 2010, mediante la entrega de la correspondiente memoria o informe preliminar de la intervención, en la sala del Servicio de Patrimonio Cultural, sito en la calle María Díaz de Haro, número 11, Bilbao, código postal 48013.

#### Artículo 3.—*Personas beneficiarias*

1. Podrán ser beneficiarios/as las personas físicas (particulares); las empresas no participadas (S.A., S.R.L., sociedades cooperativas y sociedades civiles excepto las recogidas en el artículo 1669 del Código Civil) y las personas físicas que tengan la condición de empresarios y profesionales dados de alta en el Impuesto de Actividades Económicas que hayan realizado en el año 2010, en su totalidad o en parte, la intervención que fundamenta el otorgamiento de la subvención. Los solicitantes (personas físicas y empresarios) deberán acreditar tener título jurídico adecuado y suficiente para la realización de la intervención, haber obtenido las autorizaciones, licencias y permisos que dicha intervención requiera y el cumplimiento de los requisitos que con carácter general establece la normativa foral en materia de subvenciones.

2. En el caso de que el/la solicitante no ostente la condición de propietario/a del inmueble sobre el que pretende desarrollar la intervención, deberá acreditar por cualquiera de los medios de prueba admitidos en Derecho, la previa autorización del/a titular para llevar a cabo la intervención.

3. No podrán ser beneficiarias aquellas personas en las cuales concurra alguna de las circunstancias descritas en los artículos 12.2 y 3 de la Norma Foral 5/2005 de 31 de mayo.

#### Artículo 4.—*Solicitudes y documentación*

1. Las solicitudes de subvención se presentarán en la instancia oficial que figura como Anexo I del presente decreto foral, junto con los Anexos II, III, IV y V, y la documentación que a continuación se señala y que es acreditativa del cumplimiento de los requisitos necesarios para ser beneficiario/a de la subvención.

2. Pertsonari edo erakundeei dagozkien agiriak:
  - a) Norbanakoek aurkeztutako eskabideei honako agiri hauek batu behar zaizkie:
    - 1) Nortasun Agiri Nazionalaren kopia.
    - 2) Eskatzaileak legezko nahiz borondatezko ordezkari bidez jarduten duenean, ordezkapena egiaztatu beharko da, Zuzenbidean onartzen den edozein frogabide erabilita.
  - b) Partaidetzapekoak ez diren enpresek aurkeztutako eskabideei honako agiri hauek batu behar zaizkie:
    - 1) Sozietatearen eraketa-eskrituren eta estatutuen kopia, eta erakundearen izaerari dagokion erregistro publikoko inskripzioa. Administrazioak dagoeneko baditu agiri horiek, adierazi behar da zein espedientetan dauden eta Administrazioak dituenetik hona zein aldaketa izan duten.
    - 2) Erakundearen ordezkari legez eskabidea sinatzen duenaren Nortasun Agiri Nazionalaren kopia eta ordezkaritza-ahalordea.
    - 3) Ekonomi Jardueren gaineko Zergan alta emanda daudela egiaztatzen duen frogagiria.
  - c) Enpresaburu edo profesionalak diren pertsona fisikoek aurkeztutako eskabideei honako agiri hauek batu behar zaizkie:
    - 1) Eskabidea sinatu duen pertsonaren Nortasun Agiri Nazionalaren kopia.
    - 2) Interesdunak legezko nahiz borondatezko ordezkari bidez jarduten duenean, ordezkapena egiaztatu beharko da, Zuzenbidean onartzen den edozein frogabide erabilita.
    - 3) Ekonomi Jardueren gaineko Zergan alta emanda daudela egiaztatzen duen frogagiria.
3. Jarduerari dagozkion agiriak:
  - a) Diru-laguntzaren xede den esku-hartzea egingo den higiezinaren jabetza-titularen kopia, edo esku-hartzea gauzatzeko jabeak emandako baimena. Eskatzailea higiezinaren jabeak bada, diru-laguntzarako eskabidearekin batera gainerako jabeak bat datozela eta baimena eman dutela adierazten duen agiria aurkeztu behar du.
  - b) Eskatzaileak esku-hartzea egin ahal izateko behar diren eskuespenak, lizentziak eta baimenak lortu dituela egiaztatzekeo agiria. Edonola ere, Euskal Kultur Ondareari buruzko uztailaren 3ko 7/1990 Legeak («EHAA», 157. zk., 1990eko abuztuaren 6koa) aipatzen dituen baimenak egiaztatu beharko dira.
  - c) Esku-hartze arkeologikoari buruzko aurretiazko txostena edo emaitzen memoria, esku-hartzearen ardura duen arkeologoak prestatutakoa, maiatzaren 12ko 62/1998 Foru Dekretuaren 11.6 artikuluan ezarritakoaren arabera. Dekretu horrek ezartzen du, hain zuzen, Bizkaian jarduera arkeologikoak egiteko arautegia.
  - d) 2010. urtean zehar benetan egin edo amaitu den jardueraren sarrera-gastuen aurrekontu banakatua eta xehatua; horretarako, txosten bat aurkeztu behar da, foru dekretu honen II. eranskineko ereduaren arabera. Gastuak orekatua izan behar du. Foru dekretu honen babesean diru-laguntza gisa eskatutako kopurua zehatz-mehatz adierazi behar da.
  - e) Foru dekretu honetako 10.3 artikulua adierazitako gastuaren justifikazioa.
  - f) Foru dekretu honen 6. artikulua diru-laguntza emateko zehazten dituen irizpideak justifikatzeko gainerako agiriak.
  - g) Xede bererako beste diru-laguntza batzuetarako eskabideen zerrenda, edo, bestelako diru-laguntzarik eskatu ez bada, halaxe jakinarazten duen adierazpena. Zehazki adierazi behar dira beste edozein erakunde publiko zein pribaturi xede bererako eskatutako diru-laguntzak, bai eta eskaera horiek zein egoeratan dauden (ukatua, erantzunaren zain, emana) eta zenbatekoa den ere (IV. eranskina).

##### 5. artikulua.—Agiriak aurkeztea eta horretarako epeak

1. Eskabideak Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura Ondarearen Zerbitzuaren bulegoetan aurkeztu ahal izango dira (Bilboko María Díaz de Haro kaleko 11. zenbakian, astelehenetik ostirala, 8:30etik 13:30 era), edo Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Admi-

2. Documentación relativa a la persona o entidad:
  - a) Las solicitudes que sean presentadas por particulares se acompañarán de la siguiente documentación:
    - 1) Copia del Documento Nacional de Identidad.
    - 2) En el caso de que el/la solicitante actúe como representante, legal o voluntario, deberá acreditar la representación por cualquier medio válido en Derecho.
  - b) Las solicitudes que sean presentadas por empresas no participadas se acompañarán de la siguiente documentación:
    - 1) Copia de las escrituras de constitución y estatutos societarios e inscripción en el Registro Público correspondiente a la naturaleza de la entidad de que se trate. En el supuesto de que dicha documentación obre ya en poder de la Administración, indicación del expediente en que se encuentra y modificaciones posteriores que haya conocido.
    - 2) Copia del Documento Nacional de Identidad de quien firme la solicitud en representación de la entidad y acreditación del poder de representación.
    - 3) Justificante de estar dado de alta en el Impuesto de Actividades Económicas.
  - c) Las solicitudes que sean presentadas por las personas físicas que tengan la condición de empresarios o profesionales se acompañarán de la siguiente documentación:
    - 1) Copia del Documento Nacional de Identidad de la persona que firma la solicitud.
    - 2) Cuando el/la interesado/a actúe como representante, legal o voluntario, deberá acreditarse la representación por cualquier medio válido en Derecho.
    - 3) Justificante de estar dado de alta en el Impuesto de Actividades Económicas.
3. Documentación relativa a la actividad:
  - a) Copia del título de propiedad del inmueble sobre el que recae la intervención objeto de subvención, o autorización del titular para llevar a cabo la intervención. Si el/la solicitante es titular en régimen de copropiedad, presentará la solicitud de subvención con la conformidad y autorización de los/las demás copropietarios/as.
  - b) Acreditación de haber obtenido las autorizaciones, licencias y permisos necesarios para llevar a cabo la intervención. En todo caso será necesario acreditar las autorizaciones a que se refiere la Ley 7/1990 de 3 de julio, de Patrimonio Cultural Vasco («Boletín Oficial del País Vasco» número 157, de 6 de agosto de 1990).
  - c) Informe preliminar o memoria de los resultados de la intervención arqueológica elaborado por el arqueólogo responsable de la misma y de acuerdo a lo establecido en el artículo 11.6 del decreto foral 62/1998 de 12 de mayo por el que se establece la normativa para la ejecución de actividades arqueológicas en Bizkaia.
  - d) Relación desglosada y detallada de ingresos y gastos correspondientes a la actividad que efectivamente se haya realizado o concluido, mediante la entrega del informe, a lo largo del año 2010, según el modelo establecido en el anexo II de este decreto foral. El gasto habrá de ser equilibrado. Se deberá detallar expresamente la cantidad solicitada como subvención al amparo del presente decreto foral.
  - e) Justificación del gasto a que se refiere el artículo 10.3 de este decreto foral.
  - f) Demás documentación que justifique los criterios de otorgamiento señalados en el artículo 6 de este decreto foral.
  - g) Relación de otras solicitudes de subvención para el mismo objeto o, en el caso de no haberse solicitado ninguna otra subvención, declaración indicando este extremo. Habrá de detallarse toda subvención instada a cualquier otra entidad, pública o privada, para el mismo objeto, detallándose el estado de la misma (denegada, pendiente de contestación, concedida) y su importe (Anexo IV).

##### Artículo 5.—Entrega de documentación y plazos

1. Las solicitudes se podrán presentar en las oficinas del Servicio de Patrimonio Cultural de la Diputación Foral de Bizkaia (C/ María Díaz de Haro número 11, Bilbao, de lunes a viernes de 8:30 a 13:30 horas), o en la forma que determina el artículo 38.4 de la

nistrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/92 Legeko 38.4. artikulua zehazten duen moduan (lege hori urtarrilaren 13ko 4/99 Legeak aldatu zuen).

2. Eskabideak aurkezteko epea dekretu hau «Bizkaiko Aldizkari Ofizialean» argitaratzen den egunaren biharamunean hasi eta 2010eko irailaren 30ean (egun hori barne) amaituko da.

3. Ebaluazio tekniko egin aurretik, honako hauek egiaztatu behar dira: batetik, eskabidea epearen barruan eta era egokian aurkeztu dela, eta, bestetik, eskatzaileak eskabideari erantsi dizkiola diru-laguntzaren onuradun izateko ezarritako baldintzak betetzen dituela frogatzeko aurkeztu behar dituen agiriak.

Administrazioak hori guztia egiaztatu eta gero, Kultura Ondarearen Zerbitzuko arkeologiako teknikariei bidaliko zaizkie aurkeztutako eskabideak, teknikari horiek txostena idatz dezaten. Txostenean adieraziko dute, hain zuzen ere, eskabideak bat datozen ala ez foru dekretu honetan ezarritako xedearekin eta jarduerekin.

4. Eskabideak behar bezala beteta ez badaude, edo foru dekretu honetan eskatutako agirietakoren bat falta badute, orduan, interesdunari eskatuko zaio, hamar (10) egun balioduneko epearen barruan akatsa zuzentzeko edo nahitaezko agiriak aurkezteko. Era berean, jakinaraziko zaio, horrela egiten ez badu, eskaeran atzera egin duela ulertuko dela eta, behin ebazpena emanda, eskaera artxibatu egingo dela.

5. Beharrezkotzat jotzen denean, aurkeztutako eskaerak ebazteko egoki iriztitako agiri osagarriak eskatu ahal izango dizkie Kultura Ondarearen Zerbitzuak eskatzaileei. Errekerimendua egin zaion eskatzaileak agiriok ezarritako epearen barruan aurkeztu ez baditu, eskaeran atzera egin duela ulertuko da, eta eskaera hori artxibatu egingo da, horretarako ebazpena eman ondoren.

#### 6. artikulua.—Diru-laguntza emateko irizpideak

1. Foru dekretu honetan aipatutako diru-laguntzak lehiarik gabeko araubide bidez emango dira.

2. Diru-laguntza emateko, espediente egiatututa geratu behar da, batetik, eskatzaileak onuradun izateko betekizunak betetzen dituela, eta, bestetik, dagoeneko eginda dagoen jarduera diru-laguntza jaso dezaketenen artean dagoela.

Aurreko hori egiaztatu ondoren, diru-laguntzak emango dira, aurrekontuko diru-baliabideen arabera eta ondoren aipatuko diren mugen barruan.

3. Diru-laguntzaren zenbatekoa egindako jardueren gastuen arabera zehaztuko da, BEZa kanpo utzita. Gastuak foru dekretu honen II. eranskinean ezarritako eremuan aurkeztu behar dira, eta, bertan, eskatutako diru-laguntzaren zenbatekoa zehaztu behar da.

4. Proiektua eta aurrekontua benetan diru-laguntza jaso dezaketenen jardueri dagozkiela egiaztatu ondoren, eta, behar izanez gero, zenbatu behar ez diren gairik kendu ondoren eta dagozkion zuzenketak eta doikuntzak egin ondoren, diru-laguntzaren zenbatekoa zehaztuko da; zenbateko horrek ezin izango du inoiz honako kopuru hauetako txikiena gainditu:

a) Aurkeztutako gastuen %50, baldin eta jarduera horiek beharrezkoak badira edo kalifikatutako eta inbentariatutako gune edo ondasun arkeologikoak ukitzen dituen edozein obra motaren ondorioz, edo ustez hondakin arkeologikoak dituzten gune, orube edo erai-kinak zein Eusko Jaurlaritzaren Kultura Zuzendaritza Nagusiaren artxiboetan ondasun kalifikagarri edo inbentariagarri gisa agertzen direnak ukitzen dituen edozein obra motaren ondorioz.

b) Ustekabeko aurkikuntzen ondorioz egin behar diren jarduerak gauzatzeko aurkeztutako gastuen %100.

c) Eskatutako diru-laguntzaren zenbatekoa; hala ere, beste diru-laguntza batzuk ere batera jasoz gero, berariaz ezarritakoa aplikatuko da.

5. Diru-laguntzaren zenbatekoak, berak bakarrik edo beste diru-laguntza nahiz laguntzekin batera, ezin izango du inoiz gainditu onuradunak garatu beharreko jardueraren kostua.

6. Foru dekretu honetan araututako diru-laguntzetarako dau- den funts publikoak mugatuak direla kontuan hartuta, foru dekretu honetan adierazten den gastu-egitarau bakoitzean erabilgarri dagoen zenbatekoa baliatuko da eskaerei erantzuteko.

Ley 30/92 de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, modificada por la Ley 4/99 de 13 de enero.

2. El plazo de presentación de solicitudes comenzará al día siguiente de la publicación en el «Boletín Oficial de Bizkaia», finalizando el mismo el día 30 de septiembre de 2010, inclusive.

3. Con carácter previo a la valoración técnica se verificará que la solicitud ha sido presentada en plazo y forma, así como que ha sido acompañada de la documentación exigida al solicitante para demostrar que cumple las condiciones impuestas para adquirir la condición de persona beneficiaria de la subvención.

Una vez realizada dicha verificación administrativa se dará traslado de las solicitudes presentadas a los/las técnicos/as de arqueología del Servicio de Patrimonio Cultural para que estos/as emitan el informe correspondiente en donde conste si se ajustan al objeto y actividades previstas por el presente decreto foral.

4. Si las solicitudes no se formalizaran completamente o faltara alguno de los documentos exigidos por el presente decreto foral, se requerirá al/a interesado/a para que en el plazo de DIEZ (10) días hábiles subsane la falta o acompañe los documentos preceptivos, con indicación de que, si así no lo hiciera, se le tendrá por desistido/a de su petición, archivándose la misma, previa la correspondiente resolución.

5. En aquellos casos en que se considere necesario, el Servicio de Patrimonio Cultural podrá requerir a los/as peticionarios/as cuanta documentación complementaria estime oportuna para proceder a la resolución de las solicitudes formalizadas. Si el/la peticionario/a requerido/a no presentase la documentación en el plazo que se establezca se le tendrá por desistido/a de su solicitud, archivándose la misma, previa la correspondiente resolución.

#### Artículo 6.—Criterios de otorgamiento

1. Las subvenciones a que se refiere este decreto foral se otorgarán en régimen de libre concurrencia.

2. Para que proceda el otorgamiento de la subvención deberá quedar acreditado en el expediente que el/la solicitante cumple los requisitos para ser beneficiario/a, así como que la actividad ya realizada tiene la consideración de actividad subvencionable.

Verificado lo anterior, se procederá al otorgamiento de la subvención en la medida que lo permitan las disponibilidades presupuestarias, y dentro de los límites que se señalan a continuación.

3. La determinación de la cuantía de la subvención se realizará a partir de los gastos que ha supuesto la actividad realizada, I.V.A. excluido, que se presentará en el modelo establecido en el anexo II de este decreto foral, detallando la cuantía de la subvención solicitada.

4. Una vez comprobado que el gasto corresponde efectivamente a actividades susceptibles de subvención, realizada en su caso la depuración de los excesos no computables y las correcciones y ajustes oportunos, se procederá a determinar la cuantía de la subvención, que no podrá superar la menor de las cantidades siguientes:

a) El 50 por 100 de los gastos presentados para aquellas actividades que se hayan hecho necesarias como consecuencia de cualquier tipo de obras que afecten a zonas o bienes arqueológicos calificados, inventariados, que afecten a zonas, solares o edificaciones en que se presuma la existencia de restos arqueológicos, o que consten en los archivos de la Dirección General de Cultura del Gobierno Vasco como bienes calificables e inventariables.

b) El 100 por 100 de los gastos presentados por realizar actividades necesarias como consecuencia de hallazgos casuales.

c) La cuantía de la subvención solicitada, sin perjuicio de lo previsto para el supuesto de concurrencia con otras subvenciones.

5. El importe de la subvención en ningún caso podrá ser de tal cuantía que, aisladamente o en concurrencia con otras subvenciones o ayudas, supere el coste de la actividad a desarrollar por el beneficiario.

6. Atendiendo al carácter limitado de los fondos públicos para las subvenciones reguladas en este decreto foral, las solicitudes se atenderán con el importe disponible en cada uno de los programas de gasto a que se refiere este decreto foral.

**7. artikulua.—Aholkularitza**

Kulturako Foru Saileko Kultura Ondarearen Zerbitzuak beharrezko laguntza teknikoa edo aholkularitza eskainiko du, foru dekretu honen interpretazioari eta haren xede diren proiektuei buruz sortutako zalantza edo kontsulta guztiak argitzeko.

**8. artikulua.—Ebazpena**

1. Deialdia ebatzi baino lehen, Kultura Ondarearen Zerbitzuak egiaztatuko du eskatzaileek egunean dituztela zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak. Horiek egiaztatu ondoren, eskatzailearen batek betebeharrak horietakoren bat, edozein, ez duela betetzen ikusten bada, errekerimendua egingo zaio 10 eguneko epean egoera hori konpon dezan, eta jakinaraziko zaio, horrela egiten ez badu, eskaeran atzera egin duela ulertuko dela.

2. Eskaerak Kulturako foru diputatuak ebatziko ditu, Kultura Ondarearen Zerbitzuak txostena eman ondoren Kulturako zuzendari nagusiak egindako ebazpen-proposamena ikusita, hilabete biko (2) epearen barruan, eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunaren biharamunetik zenbatzen hasita.

3. Epe horretan eskaerari buruzko berriazko ebazpenik eman ezean, diru-laguntza ukatuzat joko da; hala ere, baliteke horren gainean geroago berriaz ebaztea.

4. Diru-laguntzak ebatziko dituzten foru aginduak posta ziurtatuz jakinaraziko zaizkie interesdunei. Bertan, berriaz azaldu behar da foru aginduak administrazio-bidea amaitzen duela eta horren aurka aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkeztu ahal zaiola Bizkaiko Foru Aldundiko Kulturako foru diputatuari, foru agindua jakinarazten den egunaren biharamunetik hilabete (1) epearen barruan, edo, bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daitekeela EAEko Auzitegi Nagusian, era berean zenbatutako bi (2) hilabete epearen barruan. Gainera, eskabideak aurkezteko epea bukatuta, eman diren diru-laguntzen zerrenda argitaratzeko iragarkia argitaratuko da «Bizkaiko Aldizkari Ofizialean», epe hura bukatu eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita bi (2) hilabete epean.

5. Arautegi honen babesean emandako diru-laguntzak batez beste arautegiaren beste administrazio batzuek edo erakunde publikoek nahiz pribatuek, estatukoek nahiz nazioartekoek, xede bere-rako ematen dituztenekin.

6. Diru-laguntza emateko kontuan hartu diren baldintzetako bat aldatzen bada, bereziki Euskal Kultur Ondareari buruzko uztailaren 3ko 7/1990 Legeak («EHA», 157. zk., 1990eko abuztuaren 6koa) aipatu baimenaren ondoriozko betebeharrak betetzeari buruzkoak, eta betiere estatuko edo atzerriko beste administrazio batek edo erakunde publiko zein pribatu batek aldi berean beste diru-laguntza edo laguntzaren bat emanez gero, gerta liteke diru-laguntza emateko ebazpena aldatzea, zeren foru dekretu honen bitartez araututako diru-laguntzen zenbatekoa, bakarrik zein beste diru-laguntza edo laguntza batzuekin bat eginda, inolaz ere ezin baita izan onuradunak egin beharreko jardueraren kostua baino handiagoa.

**9. artikulua.—Diru-laguntza ordaintzea**

1. Diru-laguntza eman zaiola adierazten duen jakinarazpena jaso eta ondorengo hamar egun baliodunetan onuradunak ez badio beren beregi eta idatziz uko egiten, diru-laguntza onartu duela ulertuko da.

2. Aurreko puntuan aurrez ikusitako epea igarota, Kultura Ondarearen Zerbitzuak diru-laguntzaren ordainketa izapidetuko du Ogasun eta Finantzen Foru Sailean aurrean eta onuradunei ez zaie horretarako inolako bermerik eskatuko.

Betebeharra aitortu eta diru-laguntza ordaindu aurretik, egiaztatu egingo da onuradunek egunean dituztela hala zerga betebeharrak nola Gizarte Segurantzarekikoak.

3. Egiaztatzearen ondorioz ikusiko balitz onuradunen batek ez duela aurreko lehenaldian ezarritakoa betetzen, errekerimendua egingo zaio hamar (10) eguneko epean egoera hori konpon dezan, eta jakinaraziko zaio, horrela egiten ez badu, emandako diru-laguntzarako eskubidea galduko duela.

